

**8/2016. AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK**  
**2016ko AZAROAREN 8an EGINDAKO BILERA**

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA:**

Pablo Azcona Molinet jn., Lodosako alkatea

**LEHEN PRESIDENTEORDEA:**

Raquel Garbayo Berdonces and., Cintruenigoko alkatea

**BATZORDEKIDEAK:**

Javier Albizu Sanz, *Artazuko alkatea*  
Arturo Golaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*  
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*  
Angel Obanos Galar jn., *Artikako presidentea*  
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko lehendakaria*  
Maria Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*  
Ezeziel Martin Muxika jn., *Atezko alkatea*  
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*  
Mario Fabo Calero jn., *Martzellako alkatea*  
Angel Navallas Echarte, *Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea*  
Karmele Marañon Chasco and., *Arbizuko alkatea*  
Luis Alfonso De Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*  
Jesus Maria Rodriguez Gomez jn., *Ribaforadako alkatea*  
David Alvarez jn., *Castejongo alkatea*

**Ezin etorria adierazi dute:**

Ur Alguero Chivite jn., *Aresoko alkatea*  
Joseba Asiron Saez jn., *Iruñeko alkatea*  
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesko alkatea*

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamaseiko azaroaren zortzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deian, batzorde betearazlea elkartu da Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera karrika 20-3. solairua, Iruñea), eta bertan izan dira albo batean aipatutako batzordekideak. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. izan da, eta idazkaria, berriz, Berta Enrique Cornago andrea, erakundeko idazkaria, honakoa izanik,

**EGUNEKO GAI ZERRENDA**

- 1.- Aurreko bilkurako akta onetsi.
- 2.- Batzordeen eta kontseilu sektorialen informazioa.
- 3.- Ordezkariek izendatzea batzorde sektorialetarako.
- 4.- Euskara teknikaria kontratatzeko oinarriak onartu.
- 5.- Presidentearen informazioa.
- 6.- Galde-eskeak.

**1. PUNTUA. Aurreko bilkurako akta irakurri eta onetsi.**

Presidenteak aginduta bilkurari hasiera emanda, eta bilerarako deialdiarekin batera 2016ko urriaren 11ko bilkuraren aktaren kopia bidalita, alde zuzenetik aipatu akta irakurri beharrik gabe, presidente jaunak batzorde betearazleko kideren batek aurreko bilkurako aktari oharren bat egin nahi ote dion galdetu du.

Martzellako alkate Fabo jaunak galdetu du, aktan jasotakoaren arabera, EJZren gaineko hobariengatik izandako konpentsazio ekonomikoei buruzko informazioa jasotzeko egindako eskaeraren inguruan zerbait egin ote den. Presidenteak erantzun dio baietz, informazioa jaso zuela Toki Araubideko Foru Batzordearen azken bileran, eta falta diren konpentsazioak ahal denik eta azkarren egitea eskatu zuela.

Ez zaio oharpenik egin.

**ERABAKI DA:** Aurreko bilkurako akta onartzea.

## **2. PUNTUA. Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.**

Batzordeei eta kontseiluei buruzko informazioa eman da; horietan diren ordezkariak emandako informazioa bidali dugu.

- **Nafarroako Gizarte Ongizateko Kontseilua (ezohikoa)** (2016/10/14). Ondorengo gai horiek aztertu zirela aipatu da: fundazioen eta babes-jarduereen tributu-araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzeko proiektua, eta familiako harrera-zerbitzua garatzeko Foru Aginduaren proiektua. Biek aldeko irizpena jaso zuten.
- **Nilsako administrazio-kontseilua** (2016/10/16). Aztertu ziren puntuei buruzko informazioa eman da. Tokiko Administrazio Departamentuak uraren hiri-zikloaren plan zuzentzailea eta 2017rako aurrekontuaren zirriborroa lantzeko, eta NILSaren zerbitzu-gutuna berraztertzeko Nilsari egindako enkarguari buruzko informazioa azpimarratu da.
- **Bizikletei buruzko lan-batzordea - G1** (2016/20/24). Hiri-inguruneetan bizikletak erabiltzeko ordenantza marko baten diseinuan aurrera egin dela jakinarazi da.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea** (2016/09/25). Jakinarazi da batzorde horretan hiru testu legegileri buruzko txostenak eman zirela.
  - Foru-dekreturako proiektua, gazteek eta gazteriarekin lotura duten eragileek parte hartzeko egituraturako elkarrizketa arautzen duena.
  - Foru Legerako aurreproiektua, Nafarroako Tokiko Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
  - Foru Legerako aurreproiektua, 2017ko eta 2018ko aurrekontu-ekitaldietarako Nafarroako zergetan transferentzia arrunten bidez tokiko ogasunen partaidetza-funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen.
- **Lurraldeak Mugatzeko Batzordea** (2016/10/25). Ondorengo gai horiek aztertu zirela aipatu da:
  - Esteribarko Udalaren eta Baztango Udalaren arteko udal-mugen mugaketa partziala "Erregerena" mendian.
  - Arteta Kontzejuaren iraungipena.
  - SITNAko administrazio-unitateen lantaldearen informazioa.
  - Mendabiako eta Argoncilloko udal-mugen arteko mugaketaren egoerari buruzko informazioa.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea** (2016/10/27). Jakinarazi da batzorde horretan 2017. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-legearen aurreproiektuari txostena eman zitzaiola.
- **Ekonomia eta Gizarte Kontseilua** (2016-10/28). 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa foru-legearen aurreproiektuari ere txostena emaitzaita.
- **Nafarroan Bideozaintzaren inguruko Bermerako Batzordea** (2016/10/28). Hainbat udalek bideozaintzako kamerak berritzeko eta baimentzeko aurkeztutako eskaerei aldeko txostena eman zitzaien.
- **Enplegu babestua babesteko batzordea** (2016/11/7), Batzorde horren helburuetako bat kontratu publikoei buruzko foru-legean aurreikusten den % 6ko erreserba betetzea da.

- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua (2016/10/28).** Batzorde horretan den ordezkariak esan du Departamentuaren organigrama berriari buruzko informazioa eman zutela, eta hondakinak kudeatzeko plana aurkeztu zutela berriro. Halaber, aurten egin den enduro probaren ondorioz hainbat toki-erakundetan sortutako kalteen berri eman zuten.

Afera horren inguruan, jarduera horietarako baimenak ematen direnean fidantzak eskatu beharko liratekeela uste da. Gaia juridikoki aztertzea eskatu zuten.

Artazuko alkate Javier Albizuk esan du azaroaren 3an Eskola Kontseiluaren azpitalde den Hezkuntzako Departamentuarterko Batzordearen bilera egin zela, eta horretan udaberrian landa-eskolei buruzko jardunaldiak antolatuko direla aipatu zen. Helburuetako bat kontzeptu hori definitzea izanen da. Esan du jarraituko duela horri buruzko informazioa ematen.

**ERABAKI DA:** Jakinaren gainean egotea.

### **3. PUNTUA. Ordezkariak izendatzea batzorde sektorialetarako.**

Ondorengo batzorderako ordezkaria izendatzea proposatzen da:

- Enplegu babesturako laguntza-batzordea, kontratuen erreserba betetzeko.

*Pablo Azcona Molinet*, NUKFko presidentea

**ERABAKI DA:** Izendapena onartzea proposatutako moduan.

### **4. PUNTUA. Euskara teknikaria kontratatzeko oinarriak onartu.**

Presidenteak, NUKFren jarduera-programan jasotakoaren arabera, euskara-itzultzailea kontratatzeko oinarriak onartzea proposatu du. Oinarriak deialdiarekin batera bidali dira.

Azaldu du oinarriak Euskarabidearekin landu direla, eta bera arduratuko dela hautaketa-probak egiteaz.

Oinarrien edukiari dagokionez, aipatu du denboraldi partzialerako kontratatzea proposatu zela, baina berrikus daitekeela afera hori, lanpostu berria izanik, zaila baita zehaztea zein izan beharko lukeen lanaldia.

Albizu jaunak esan du lanpostuak itzultzaile-lanez gain beste eginkizun batzuk ere bete ditzakeela; telefono bidezko arreta eta aholkularitza toki-erakunde txikiei.

Horri loturik, Goldaracena jaunak esan du pertsona bat maila eta eginkizun zehatzetarako kontratatuz gero, zail dela gerora beste eginkizun batzuk ematea.

Idazkari nagusiak esan du lanpostuaren profila zehaztu beharra dagoela. Printzipioz orain arte kanpoko zerbitzu baten bitartez bete den itzulpen-eginkizunak burutzeko planteatu da. Toki-erakundeei bideratutako bestelako berariazko laguntza eta aholkularitza eginkizunak esleitzeak eskatuko luke aurrez NUKFk eman beharko lituzkeen zerbitzuak aztertzea. Edonola ere, oinarrietan jaso beharko lirateke.

Garbayo andrean galdetu du ea kontratazio horrek orain arteko kanpoko itzulpen-zerbitzuarekiko aurrezpenik ote dakarren, eta kostu horri buruzko informazio zehatza eskatu da. Esan du, halaber,

burutuko dituen eginkizunen arabera (telefono bidezko arreta, eta abar) maila baxuagoa planteatu daitekeela.

Sortu diren aferak direla-eta, presidentek gaia gehiago aztertzea eta hurrengo bileran aztertzea proposatu du, batez ere bete beharreko eginkizunei eta lanaldiari dagokienez.

## **ERABAKI DA:**

Gaia hurrengo bilerarako uztea, eginkizunak eta lanaldia gehiago zehazte aldera.

## **5. PUNTUA. Presidentearen informazioa**

Presidente jaunak honako gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Lankidetzaren proiektuetarako deialdiaren ebatzea. Jasotako komunikazioaren arabera, aukeratutako proiektuetako batek uko egin diola jakinarazi da: "Grissa-n (Dugda barrutia) Maria landa-ikastetxean edateko ura eta saneamenduko oinarriko zerbitzuak jartzea. Etiopia". Proiektu horri dagokion zenbatekoa batzorde betearazlean adostutakoaren arabera, hurrengo proiektuen artean banatuko da.
- 5.000 euro Haitirako. Bertan lanean diharduten erakundearen artean 5.000 euro banatu direla jakinarazi da. Koordinakundeak emandako informazioaren arabera: Unicef, Intermon Oxfam, Manos Unidas, Alboan Navarra eta Acción contra el Hambre.
- Poliziei buruzko foru-legea. Jakinarazi da txosten juridiko bat lantzen ari direla, eta Barneko Departamentuarekin bilera bat egitea eskatu dela, tokiko polizien lansari-araubide berria aplikatzeari buruzko irizpidea, eta foru-legea aldatzeko izan dezakeen asmoa ezagutzeko. Ondoren, toki-polizia kidegoak edo udaltzainak dituzten toki-erakunde guztiekin bilera egingen da.

Larrarte jaunak dei egin du poliziei buruzko foru-legea onartzea egokia den foro guztietan toki-erakundeek parte hartzera.

Goldaracena jaunak esan du zenbat eta azkarren egin, orduan eta hobeto. Planteatu du zer egin behar den hitzarmenaren arabera udaltzainek foruzainen eskubide berdinak aitortuak dituzten kasuetan.

Alvarez jaunak aldeek adostutako lege bat egin behar dela esan du, apiriletik aurrera egin behar bada ere.

Halaber, poliziak koordinatzeko batzordeko kide diren alkateak batzorde horretarako bileretara joan aurretik beraien artean koordinatzea garrantzitsua litzatekeela esan du.

- Tokiko mapa berrantolatzearen prozesuaren parte-hartzaileari buruzko informazioa. Aipatu da Nafarroako Gobernuak behin betiko agiria noiz bidaliko zain gaudela, prozesuaren barnean jarraitu beharreko metodologia onartzeko.
- Kontzejuen taldea. Jakinarazi da heldu den 19an kontzejuen taldearen osoko bilera egingen dela.
- 0-3ko taldea. Jakinarazi da heldu den ostegunean 0-3ko taldearen osoko bilera egingen dela, izandako aurrerapenen eta talde eragilearen ondorioen berri emateko.

## **6. PUNTUA. Galde-eskeak.**

Larrarte jaunak galdetu du nola dagoen isunak erkidegoaren aldeko lanengatik ordezkatzeari buruzko txostenaren lanketa.

Idazkariak erantzun dio lantzen ari direla, eta bukatutakoan eskatuko duten erakundeen eskura jarriko dutela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemeretziak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.